

## EUSKADIKO EKONOMIAKO IV. OLIMPIADA 2012ko APIRILAREN 20a

### AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak bigarren mailako batxiergoko "Ekonomia eta Enpresen Antolaketa"ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxiergoko lehen mailako "Ekonomia" irakasgaiko 2 galderagatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

### EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

#### 1. GALDERA

Azken urteotan, automobil enpresek ahalik eta gasolina edo diesel gutxien kontsumitzen duten modeloak sortzeko eta merkaturatzeko apustua egin dute. Dagoeneko auto hibridoak aurki ditzakegu merkatuan (motor bikoitza, errekontzakoa eta elektrikoa dutenak; hirirako eta abiadura txikian ibiltzeko egokiak), eta laster auto guztiz elektrikoak egongo omen dira. Auto horiek bateria bidez funtzionatzen dute eta sare elektrikoaren bidez kargatzen dira. Horrez gain, presiozko aire bidez edo gas likidotu bidez mugitzen diren autoak izango ditugu, hiriko auto utilitario txikien antzeko zerbitzuekin. Propulsio aukera horiek guztiak errekontza motorra ordezkatzeko duen soluzio nagusia izateko lehian dabilta, eta, oraino, ez dago guztiz argi zein gailenduko den.

Orain, irakur ezazu [www.elConfidencial.com](http://www.elConfidencial.com) egunkaritik ateratako albiste hau:

[ElConfidencial.com](http://ElConfidencial.com) > **Motor**

EUROPAKO BATZORDEAREN BABESA DU

## Hiriko, euskal auto elektrikoa



A. López 2012-01-27 (6:00etan)

IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|\_|



**Hiriko** izena hautatu dute, bere esanahiagatik, aurreko asteazkenean Europako Batzordean, Durao Barroso presidentearen aurrean, ofizialki aurkeztu zuten proiektu honentzat.

Izen horrek hainbat enpresa euskaldunen artean osatutako partzuergo batek sustatutako asmo handiko proiektu bat barne hartzen du. Enpresa horiek **% 100 elektrikoa den bi lagunentzako auto bat merkaturatu nahi dute 2013an**, hiri barruan erabiltzeko modukoa. Proiektuak Europako Batzordearen oniritzia jaso du, proiektu berritzailea eta teknologia oso aurreratukoa baita, eta bere oinarri nagusien artean ingurumena babestea baitu.

**2,5 metroko luzera eta bi pertsonentzako lekua ditu** ibilgailu prototipo honek, eta atea aurrealdean eta gorantz irekitzen da, BMWren Isetta klasikoan bezala (kasu honetan, aurreko atea gorantz irekitzen da, ordea). Itxuraz berritzailea da, baina interesgarriena ez da hori, ibilgailua tolesgarria dela baizik. Bere luzera 1,5 metrora arte murriz daiteke, errazago aparkatu ahal izateko.

[...]

Prezioari dagokionez, oraindik ez dute finkatu, urte eta erdi baino gehiago falta baita ibilgailua hipotetikoki martxan jartzeko, baina **12.500 euro inguruan** ibiliko dela uste da, baterien kostua kontuan hartu gabe.

Udazken honetan lehen unitateak egiten hasiko dira agian. Ondoren, unitate horiek mundu osoko hainbat hiritara bidaliko dituzte; dagoeneko azken probak egiteko hitzarmenak sinatuta daude hiri horiekin. Baliteke azken bezeroentzako ekoizpenari **2013. urte hasieran ekitea**, lehen muntaia instalazioan.

Idea munduko ingeniari onenak prestatzen dituen Estatu Batuetako MIT institutu ospetsuan sortu zen. Abiapuntu hori hartuta, euskal partzuergoak proiektua garatu du. Dagoeneko negozioa hedatzeko planak egin dituzte, Espainiako instalazioaz gain, **ingurumenaren babesaren arloan aurreratuen dauden hainbat herritan** ere fabrikak muntatzea aurreikusten baitute, esaterako, Suediako Malmoe hirian; betiere, makrohiriak alde batera utzi gabe (San Francisco, Boston eta Berlin kasu).

Eraikuntza modularreko auto honek Ignacio López de Arriortúaren proiektu ezaguna gogorarazten du zenbait alderditan. Ingeniari espainiar horrek automobilgintza ulertzeko beste modu bat defendatu zuen laurogeiko hamarkadaren amaieran, osagaien fabrikatzaileak ibilgailu amaituaren protagonistatzat hartuta.

Iruzkina hauek ere irakur itzazu: |

IRAKURLEEN IRITZIAK,  2 IRUZKIN

**2 .-** Ezinezkoa da 12.000 euro balio izatea. Ideia gauzatzen bada, askoz ere gehiago balioko du, diru-laguntzak alde batera utzita.

Berez, ekologiaren gaiak ez du garrantzirik hemen. Hortxe dugu Toyota etxearen Auris autoa, eta ez dute bat bera ere saltzen, ezta prezio baxuekin ere. Eta auto ederra da, Japonian gehien saltzen dena; han benetan axola zaie ingurumena.

Hemen itxurari eta prezio oneko kirol auto bat eskuratzeari ematen diogu garrantzia.

**Tiroloco McCrow**

2012-01-31, 21:17an.

**1 .-** A zer txorakeria. Artikulua ondo hasi da, tramankuluaren preziora iritsi arte.

Errekuntza bidezko motorra duen bere baliokideak (kaleetan ikusten ditugun auto txiki horiek, motoko baimenarekin gida daitezkeenak) erdia baino gutxiago balio du, eta gasolina gutxi kontsumitzen du. Beraz, argi dago.

Sektore honek irudimen handiagoa behar du. Duela gutxi leku ez oso fidagarri batean

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |



irakurri nuen indiarrek aire konprimituzko motor bat atera dutela, erregairik behar ez duena eta egungo elektrikoak baino autonomia gehiago duena. Inork ba al daki ezer?

Twiteo deloLindo  
2012-01-30, 13:07an.

Eta, orain, bi egoera hauek irudika itzazu:

**LEHENENGO EGOERA:** Demagun petrolioaren prezioa % 70 igotzen dela datozen bost urteetan, eta ez dela jaitsiko, erregaien prezioak izugarri garestituz. Imajina ezazu baita ere betiko hainbat fabrikatzaile daudela, bakoitza aukera bat baino gehiagoren aldeko apustuak egiten aldi berean, eta baita horrelako utilitario ereduak eskaintzen dituzten fabrikatzaile berri gehiago ere (Hiriko bezalakoak).

**BIGARREN EGOERA:** Demagun petrolioaren prezioa ez dela % 10 baino gehiago igotzen datozen urteetan, baina ezta jaitsi ere. Imajina ezazu baita ere betiko hainbat fabrikatzaile daudela, bakoitza aukera bat baino gehiagoren aldeko apustuak egiten aldi berean, eta baita horrelako utilitario ereduak eskaintzen dituzten askoz ere fabrikatzaile berri gehiago ere (Hiriko bezalakoak).

ZERA ESKATZEN DA:

- a) Marketinean, Produktu, Prezio, Banaketa eta Komunikazio aldagaiei buruz hartu beharreko erabakien ikuspuntutik, zein arazo ikusten dituzu kotxe hau modo masibo batean merkaturatzeko? Zure erantzuna argudia ezazu, egoera bakoitzean zergatia azaltzen saiatuz.
- b) Produktuaren bizi-zikloaren eredu orokorra erabiliz (PBZ), informazio honen arabera nolakoa izan beharko litzateke prezio-politika zure ustez? Zein helburu nagusiarekin? Erantzuna egoera bakoitzean eman ezazu

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|



## 2. GALDERA

Irakur ezazu 2012-03-03an *El País* egunkarian argitaratutako albiste baten laburpen hau:

# Produktibitatearen izenean

Kaleratzeagatiko kalte-ordainak merkatzeak enpresei soldaten kontura lehiakorragoak izatea ahalbidetzen die

Krisi garaian kaleratzeagatiko kalte-ordain txikiagoak emateko eta soldatak murrizteko erraztasunak, enpresa hitzarmenei emandako lehenetasuna, baja medikoak mugatzeko neurriak edo prestakuntza eskema berria dira Gobernuak lan erreformaren testuinguruan proposatutako neurri batzuk, eta denek ezkutuko ildo berari jarraitzen diote: produktibitatea areagotzea eta ekonomia lehiakorragoa bihurtzea. Alabaina, hori al da bide onena edo bakarra? Trukean eman beharrekoa ez ote da gehiegizkoa edo kaltegarria izango?

Ia aditu guztien nahia da eskuragarri ditugun produkzio faktoreekin produktibitatea areagotzea eta balio erantsi eta errenta handiagoa sortzea. Denek uste dute azken urteetan Espainiako ekonomia atzeratuta gelditu dela, Euroguneko gainerako herrialdeekin alderatuta, eta horrek desoreka handiak sorrarazten dituela. Hala ere, aditu guztiek ez dute uste atzerapen horren arrazoi nagusia soldaten gehiegizko igoera denik. Hona hemen lan erreformaren ideia nagusiak: soldatak jaisteko zailtasunak krisi garaian kaleratze masiboak dakartza, baita horrek langile prestatuak galtzea badakar ere; kaleratzeagatiko kalte-ordain handiek aldi baterako kontratuak behar baino gehiago erabiltzea eragiten dute; eta, azkenean, txandaketa horrek antolamendua hobetzeko plangintzak egitea eta aldaketa teknologikoak sartzeari zailtasunak sartzea zailtzen du.

[...]

Beste aditu batzuek, esaterako CCOOren Ekonomia Kabineteko zuzendari [eta Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakasle] Miguel Ángel Garcíak, uste dute erreformak negoziazio kolektiboan izango duela eragin handiena. Garcíaren hitzetan, “erreforma enpresariak guztiz jarrera arrazoizkoa izango duela pentsatuta sortu da; alegia, produkzio faktoreak modu eraginkorrean ordainduko dituela eta soberakinen beharrezko zatia enpresan inbertituko duela berriro. Alabaina, errealitatea ez dator bat jokabide horrekin; izan ere, Espainiako enpresari askok nahiago dituzte irabazi azkarrak eta prezio altuak oinarritzat dituzten unean uneko proiektuak, azken hedapen etapan egiaztatu ahal izan dugun moduan”. Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakaslearen iritziz, “neurri horiek guztiek barneko malgutasuna modu asimetrikoan aplikatzea ekarriko dute; oso erraz aplikatuko da zikloko une txarretan baldintzak murrizteko, baina nekez une onenetan, langileek produktibitatea hobetzearen ondorioz lortutako onurak eskuratu beharko lituzketenean”. Beraz, Miguel Ángel Garcíak azken balantzea oso negatiboa dela uste du, eta hau ondorioztatzen du: “erabaki honek langileek enpresa proiektuan parte hartzeko dituzten aukerak izugarri ahultzen ditu, eta, aldi berean, enpresari berritzaileen kalterako izango da, beren pribilegioak ustiatu eta langileen baldintzak indargabetuko dituzten gainerako enpresarien lehia desleiala jasan beharko baitute”.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |



Albistean produktibitatea erabiltzen da gaur egungo gobernuaren lan-erreforma justifikatzeko argudio gisa. Albistea irakur ezazu eta ondorengo galderak erantzun itzazu:

- A) Produktibitatearen kontzeptua defini ezazu, guztizko produktibitatearen (produktibitate totalaren) eta produkzio-faktore baten produktibitatearen artean bereiztuz
- B) Ekoizpen prozesuan ondorengo eraginkortasun (efizientzia) motak defini itzazu eta beraien arteko eralazioak komenta itzazu: eraginkortasun produktiboa (produkzioaren efizientzia), eraginkortasun teknikoa (efizientzia teknikoa) eta eraginkortasun ekonomikoa (efizientzia ekonomikoa)
- C) Zer esaten da albistean lan-erreformaren eta defini dituzun produktibitate eta eraginkortasun kontzeptuen arteko erlazioari buruz?
- D) Garcia Jaunaren iritzia komenta ezazu: Zein arazo ikusten ditu lan-erreforman? Guztizko produktibitatean eta eraginkortasun ekonomikoan efektu positiboak izango dituela uste al du?

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



### 3. GALDERA

ANTA Sozietateak kirol zapatillak fabrikatzen ditu. Zapatilla hauek itxigailu berezi bat dute. Itxigailu hauek, Koreako enpresa batek, 3 eurotan unitate bakoitza, ekoizten ditu.

ANTA Sozietatea itxigailu horiek berak ekoiztearen posibilitatea aztertzen dago. Horretarako 10.000 eurotako kostu finko bat jasan beharko du, gehi euro bateko kostu aldakorra itxigailu bakoitzeko. Zapatilla pare bakoitzak lau itxigailu dituela kontuan harturik, zera eskatzen da:

- a) Itxigailuen ekoizpena ANTAn egitea errentagarria izateko ekoiztu beharko litzatekeen zapatilla kopuru minimoa.
- b) Kalkulu hauen irudikapen grafikoa
- c) Urtean 4.000 zapatilla pare ekoiztuko balira, zein izango zen ANTA Sozietateak itxigailuak ekoiztearen aurrezkia edo galera?
- d) Testuinguru honetan, zer da lokagunea edo errentagarritasun- atalasea?



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



#### 4. GALDERA

2011-12-31n FS SAK hurrengo saldoak aurkezten ditu:

(700)	Salgai-salmentak	121.203
(600)	Salgai-erosketak	75.910
(206)	Aplikazio Informatikoak	4.960
(211)	Eraikuntzak	74.950
(100)	Kapital Soziala	¿?
(112)	Legezko Erreserba	4.517
(300)	Salgaiak	42.728
(400)	Hornitzaileak	12.044
(252)	Epe Luzeko Zorrak	2.650
(430)	Bezeroak	134
(410)	Zerbitzu-emateagatiko Hartzekodunak	6.915
(640)	Soldatak	17.000
(642)	Enpresaren Kargurako Gizarte-Segurantza	2.659
(572)	Bankuak	1.000
(570)	Kutxa	211
(520)	Kreditu-erakundeekiko Epe Laburreko Zorrak	21.697
(769)	Bestelako Sarrera Finantzarioak	14
(662)	Zorren Interesak	4.354
(170)	Kreditu-erakundeekiko Epe Luzeko Zorrak	54.903
(680)	Ibilgetu Ukiezinaren Amortizazioa	1.000
(681)	Ibilgetu Materialaren Amortizazioa	4.658
(621)	Errentamenduak eta Kanonak	9.525
(2806)	Aplikazio Informatikoen Amortizazio Metatua	2.000
(2811)	Eraikuntzen Amortizazio Metatua	30.000
(610)	Salgai-izakinen Aldakuntza	1.000
(129)	Ekitaldiko Emaidza	¿?

#### ESKATZEN DA:

- a. Ekitaldiko Emaidza zehaztea eta Galdu-Irabazien Kontua aurkeztea.
- b. Kapital Sozialren kopurua zehaztea eta Egoera Balantzea aurkeztea.
- c. Maniobra Fondoa kalkulatzeko. Lortutako balioaren esanahia azal ezazu.
- d. Epe Laburreko Kaudimena eta Likidezia kalkulatzeko. Lortutako balioaren esanahia azal ezazu.
- e. Berme-ratioa (Kaudimen Osoaren ratioa) kalkulatzeko. Lortutako balioaren esanahia azal ezazu.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



## 5. GALDERA

BETA Sozietateak osagai elektronikoak merkaturatzen ditu eta 2011 urtean zehar ondorengo eragiketak egin ditu:

- 1-1 Hasierako izakinak : 2.000 unitate, 0,55 eurotan unitate bakoitza
- 2-3 Erosketa: 500 unitate, 0,57 eurotan unitate bakoitza
- 3-4 Salmenta: 900 unitate, 0,85 eurotan unitate bakoitza
- 2-5 Erosketa: 600 unitate, 0,55 eurotan unitate bakoitza
- 25-5 Erosketa: 800 unitate, 0,58 eurotan unitate bakoitza
- 15-6 Salmenta: 1.200 unitate, 0,90 eurotan unitate bakoitza
- 7-9 Erosketa: 700 unitate, 0,62 eurotan unitate bakoitza
- 8-10 Erosketa: 500 unitate, 0,65 eurotan unitate bakoitza
- 15-12 Salmenta: 1.300 unitate, 0,95 eurotan unitate bakoitza
- ZERA ESKATZEN DA:

a) Amaierako izakinen balioa kalkulatu ezazu Batezbekeko Prezio Haztatua (BPH) eta FIFO irizpideak erabiliz

b) Izakinak baloratzeko irizpideak eragina al du BETA Sozietatearen mozkinetan?

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



## EKONOMIA

### 1. GALDERA

## Katalunian errezeta mediko bakoitzeko euro bat ordaindu beharko da 2011-12-20

Andreu Mas-Colell Ekonomia kontseilariak Kataluniako Parlamentuan eskaintako prentsaurrekoan adierazi duenez, **hasiera batean kopuru hori “unibertsala” izango da**, baina aurrerago errentaren arabeko salbuespenak aztertuko dituzte. Horrez gain, 2012ko aurrekontuetan, hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zergaren zati autonomikoa areagotu egingo da, zehazki, bikoiztu egingo da (litroko 0,024 eurotik 0,048 eurora); eta gau bakoitzeko euro bat eta hiru euro artean biltzeko turismo tasa bat ere ezarriko da. Hiru neurri horiek ez dute eragin handirik izango aurrekontuetan (**osasun arloko ordainketekin 100 milioi biltzea aurreikusten da**, beste horrenbeste turismo tasarekin eta 130 milioi gasolinekin), baina herritarrek eta turistek berehala nabarituko dituzte.

Bost izarreko hoteletan ostatu hartzen duten edo itsasontziz iristen diren turistek gau bakoitzeko 3 euro ordaindu beharko dituzte, 4 izarreko hotelak aukeratzen dituztenek gau bakoitzeko 2 euro, eta gainerakoek euro bat. Beraz, pertsona bakoitzak karga hori bertan igarotzen dituen gau kopuruarekin (gehienez hamar) biderkatuta ateratzen dena ordaindu beharko du. Aurrekontuko zifra handiei dagokienez, **Kataluniako Gobernuak estatuko Gobernuak ezarritako aurrekontu defizitaren eta zor publikoaren mugak errespetatuko dituela bermatu du**, eta, kontuek murriztaileak izaten jarraituko badute ere, gastu murrizketa 2011n aplikatutako % 10a baino askoz ere txikiagoa da. Guztira, Kataluniako administrazioaren kontu publikoei dagokienez, gastua 37.024 milioikoa izango da, eta aurreikusitako defizita 2.740 milioikoa.

Generalitateak aurtengo ekitaldia bere kontuetan aurreikusitako % 2,6a baino defizit handiagoarekin ixtea aurreikusten badu ere, 2012an ezarritako defizita bete dezakeela uste du, **diru-sarrerak % 9,1**, alegia, 24.332 milioi, **areagotuko direlako** (horietako 2.191 milioi Generalitatearen diru-sarrerak izango dira). Generalitatearen gastu osoa kontuan hartuz gero, eta ez kontseilaritzena bakarrik, 37.024 milioiko zifra aurreko urtekoa baino % 5,9 txikiagoa da. Mas-Colellek aurrekontuak azaltzeko justifikazio hauek eman ditu prentsaurrekoan: **“Aurrekontu honek zerbitzu publikoetako gastuen egiturari, aurreko urtekoarekin alderatuta, bere horretan eustea ahalbidetzen du**, eta diru-sarrerak areagotuko direla aurreikusten dugu; alde batetik, finantziazio sistemaren diru-sarrerak (tasak eta zergak) igota, eta, bestetik, higiezinak eta ondarea salduta”.

Turismo eta osasun tasak aplikatzeaz gain, Kataluniako Gobernuak egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga handituko du, ondare zergarekin 240,4 milioi euro biltzea espero du (700.000 eurotik gorako errenta dutenei bakarrik kobratuko diete Katalunian) eta ondarea salduta edo emanda 888,2 milioi euro jasotzea aurreikusten du. Dena den, Mas-Colellek ez du aurtengoa egokitzapenen azken urtea izango dela esateko konpromisoa hartu nahi izan, hori “diru-sarreraren eta maila ekonomikoaren menpe” egongo baita. 2012ko kontuetan gastuari bere horretan eusteko beste neurri bat **Gobernuak funtzionarioei aplikatuko dien soldata murrizketa da**. Neurri horrek, langileei eragiten dieten beste neurri batzuekin batera, 625 milioi aurreztea ekarri behar luke.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



- a) Testuan azpimarratutako kontzeptuak defini itzazu
- b) Zergatik onartu du Kataluniako gobernuak euro bateko ordainketa mediku-errezeta bakoitzeko?
- c) Mediku-errezeta bakoitzeko euro bateko ordainketaz gain, Kataluniako gobernuak beste doiketa-neurri batzuk onartu ditu. Onartutako neurriak ekitatiboak al dira, hau da, familien errenta kontuan hartzen al dute?
- d) Onartutako neurriek etxeko ekonomien eskaria handitzen lagunduko dutela uste al duzu, ekoizpenean gehikuntza bat lortzeko eta horrela langabezi tasa murrizteko?

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** | \_ | \_ | \_ | \_ |

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**





## 2. GALDERA

Ondorengo galderak erantzun itzazu:

- Zer da KPI (Kontsumoko Prezioen Indizea)?
- Nola kalkulatzen da KPI?
- Ondorengo taulen datuak erabiliz, 2007, 2008 eta 2009 urteetako KPIren balioa kalkula ezazu, oinarri bezala 2007 urtea hartuz.

	2007	2008	2009
Elikagaiak	8	7	12
Garraioa	5	6	7
Etxebizitza	800	900	1000
Jantziak eta aisia	9	11	15

Ondasun edo zerbitzua	2007 urtean gastuaren ehunekoa
Elikagaiak	20
Garraioa	15
Etxebizitza	10
Jantziak eta aisia	55
Guztira	<b>100</b>

- Inflazio tasaren kontzeptua defini ezazu
- Zer ulertzen da prezioen egonkortasuna esatean?

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**